OIARTZUNGO ELORSORO KIROLDEGIA, MADALENSORO PILOTALEKUA ETA UDAKO IGERILEKUAK ENERGIA ELEKTRIKOZ HORNITZEKO ETA ELORSORO KIROLDEGIA GAS NATURALEZ HORNITZEKO KONTRATAZIORAKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA

OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO ELORSORO KIROLDEGIA, MADALENSORO PILOTALEKUA ETA UDAKO IGERILEKUAK ENERGIA ELEKTRIKOZ HORNITZEKO ETA ELORSORO KIROLDEGIA GAS NATURALEZ HORNITZEKO KONTRATUA

KARATULA

<table>
<tr><td colspan="3">1.BOTERE ESLEITZAILEA: Oiartzungo Udala</td></tr>
<tr><td>Kontratazio organoa:</td><td colspan="2">Tokiko Gobernu Batzarra</td></tr>
<tr><td>Expediente zenbakia:</td><td colspan="2">2023KO030002</td></tr>
<tr><td>Porezdura mota</td><td colspan="2">Irekia</td></tr>
<tr><td>Kontratu mota:</td><td colspan="2">Hornidurak</td></tr>
<tr><td>Eskeintzak aurkezteko modua:</td><td colspan="2">Elektronikoa</td></tr>
<tr><td>Izapidetzea:</td><td colspan="2">Arrunta</td></tr>
<tr><td>Esleitzeko irizpideak:</td><td colspan="2">I. lotean irizpideen aniztasuna eta II. lotean irizpide bakarra (prezioa).</td></tr>
<tr><td>Errekurtso berezia jar daiteke:</td><td colspan="2">Bai, SPKLaren 44.1.a) artikuluan xedatutakoa</td></tr>
<tr><td>Erregulazio harmonizatutako kontratua:</td><td colspan="2">Bai, SPKLaren 21.1.b) artikuluan xedatutakoa</td></tr>
<tr><td>Kudeatutako zerbitzua:</td><td colspan="2">Argiteria</td></tr>
<tr><td>Kontratratzio organoaren helbidea:</td><td colspan="2">Done Eztebe Plaza 1, 20180</td></tr>
<tr><td colspan="3">2. KONTRATUAREN XEDEA: Oiartzungo Udaleko Elorsoro kiroldegia, Madalensoro pilotalekua eta udako igerilekuak energia elektrikoz hornitzeko eta Elorsoro kiroldegia gas naturalaz hornitzeko kontratazioa, bi lotetan banatuta, lehenengoa energia elektrikoaren hornidurari dagokiona, eta bigarrena gas naturalaren hornidurari dagokiona.</td></tr>
<tr><td colspan="3">CPV:
I. Lotea: 09310000-5 – Energia elektrikoko hornidura.
II. Lotea: 09123000-7 - Gas Naturala</td></tr>
<tr><td colspan="3">3. LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA: 761.095,98 € (BEZa barne, 17/2022 LEDare arabera aplikagarria), loteka honela banakatuta:
I. Lotea: 370.843,29 €, gehi 77.877,09 €, % 21eko BEZari dagozkionak, 448.720,38 € guztira.
II. Lotea: 297.500,57 €, gehi 14.875,03 €, % 5eko BEZari dagozkionak, 312.375,60 € guztira.</td></tr>
<tr><td colspan="3">4. BALIO ZENBATETSIA: 1.336.687,72 € (BEZik gabe), loteen arabera honela banatuta:
I. Lotea: 741.686,58 €
II. Lotea: 595.001,14 €</td></tr>
<tr><td colspan="3">5. FINANTZIAZIOA: Oiartzungo Udalak % 100ean finantzatutako kontratazioa.</td></tr>
<tr><td colspan="3">6. KONTRATUAREN IRAUPENA:</td></tr>
<tr><td>HASIERAKO IRAUPENA: BI (2) URTE, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik edo kontratu-dokumentuan ezarritako datatik kontatzen hasita.</td><td>LUZAPEN-ALDIA (K):
Bi luzapen-aldi, urte batekoa bakoitza.</td><td>BERME EPEA:
Kontratuaren izaera dela eta ez da berme eperik ezartzen.</td></tr>
<tr><td colspan="3">7. BERMEAK</td></tr>
</table>

BEHIN-BEHINEKOA: EZ	Lizitazio aurrekontuaren % 5 (BEZ kanpo).
BEHIN-BETIKOA: BAI	
OSAGARRIA: EZ	
8. BALIABIDEEN NAHITAEZKO ATXIKIPENA	BAI
9. KONTRATISTAREN SAILKAPENA	Ez da eskatzen
10. ALDAEREN ONARGARRITASUNA	EZ
11. GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK	BAI
12. PREZIOEN BERRIKUSPENA	EZ
13. SUBROGAZIOA	EZ
14. AZPIKONTRATAZIOA	EZ
15. AURREIKUSI EZ DIREN KONTRATU-ALDAKETAK	EZ
16. BERME-EPEA	Kontratuaren izaera dela eta, ez da ezartzen
17. ZEHAPENAK	Agiri honen 17. klausula
18. KONTRATUAREN ARDURADUNA ART. 62 LCSP	Argiteriaren udal arduraduna

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA, PROZEDURA IREKI BIDEZKO HORNIDURA-KONTRATURAKO, ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN ETA IZAPIDETZE ARRUNTAREN MENDE DAGOENA

1. KLAUSULA. XEDEA ETA KLASIFIKAZIOA. LOTEAK.

1.1.Kontratuaren xedea. Kontratua loteetan banatzea:

Baldintza Agiri honen xedea da **Elorsoro kiroldegirako, Madalensoro pilotalekurako eta udako igerilekuetarako energia elektrikoaren hornidura eta Elorsoro kiroldegirako gas naturalaren hornidura** kontratatzeko oinarri izatea, Baldintza Teknikoen Agiriaren **I. eta II. eranskinetan** jasotakoarekin bat.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 99.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, egokitzat jo da lizitazioaren xedea bi lotetan banatzea. Lote horiek bereizita esleituko dira, eta enpresa lizitatzaile bakoitza lote batera edo bietara aurkez daiteke:
I. lotea. Energia elektrikoaren hornidura Oiartzungo Udaleko Elorsoro kiroldegia, Madalensoro pilotalekua eta udako igerilekuetarako.

II. lotea. Gas naturalaren hordinara Oiartzungo Udaleko Elorsoro kiroldegirako. Lote bakoitzaren esleipenduna kasuan kasuko horniduraren kudeatzaile globala izango da, eta banatzaileekin kasu bakoitzean dagokion komunikazio-bide bakarra izango da.

1.2.Kodifikazioa

2007ko azaroaren 28ko 213/2008-EE Erregelamenduak onartutako Kontratu Publikoen Hiztegi Komunaren (CPV) arabera, kontratuaren xedearen kodifikazioa 09310000-5 da I. Loterako, energia elektrikoaren hornidurari dagokiona, eta 09123000-7 II. Loterako, gas naturalari dagokiona.

2. KLAUSULA. BETE BEHARREKO ADMINISTRAZIO-BEHARRAK

Elorsoro kiroldegiko, Madalensoro pilotalekuko eta udako igerilekuetako elektrizitatearen eta Elorsoro kiroldegiko gas naturalaren funtzionamendu energetikoa hobetzeko eta asetzeko beharra dago, kontuan hartuta, gainera, erakunde kontratatzailea ez dela inskribitutako ezta indarrean dagoen araudiak baimendutako merkaturatzailea ere, eta, beraz, ez duela kontratuaren xede diren hornidurei ekiteko baliabiderik.

Horregatik, eta Oiartzungo Udalak lana egiteko behar diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak ez dituenez, beharrezkoa da, lehen azaldutakoan oinarrituta, kanpoko enpresa bat kontratatzea kontratuaren xede diren hornidurei ekiteko, eta kontratazioa justifikatuta dago Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. KLAUSULA. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

Agiri honetan aipatzen den kontratuak izaera administratiboa du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 25. artikuluaren arabera, eta Lege bereko 16. artikuluko **hornidura kontratu** baten aurrean gaude. Hornidura-kontratu hori arautuko da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituena, bai eta hura garatzeko xedapenen bidez ere (aurrerantzean SPKL); Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren bidez, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartua (aurrerantzean APKLEO), eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren bidez, SPKL zati batean garatzen duena, kontratuak garatzeko autonomia-erkidegoko araudiaren bidez eta toki-araubideari buruzkoaren bidez. Osagarri gisa, oinarrizko izaerarik ez duten kontratazioari buruzko estatu-arauak, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak aplikatuko dira.

Era berean, aldeek berariaz bete beharko dute Baldintza Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian ezarritakoa.

Baldintza Agiri hau, Baldintza Teknikoen Agiriak eta horien eranskinak kontratu-izaera izango dute. Kontratuak Baldintza Agiri honen edukira egokituko dira, eta horien klausulak kontratuen zatitzat hartuko dira.

Kontratu-dokumentuen artean desadostasunik badago, eta horien interpretazio sistematiko batek ezin badu gainditu, Baldintza Agiri honetan ezarritakoa gailenduko da, salbu eta ondorioztatzen bada egitatezko akats edo akats aritmetiko nabarmena dela edo, espezialitate teknikoagatik, dokumentu teknikoa administrariaren gainetik jarri behar dela.

Kontratua, kontratuaren dokumentu eranskinak, jarraibideak, baldintza agiriak edo administrazioak ezarritako bestelako edozein arau, kontratuan adostutakoa egikaritzeko

aplikagarri izan daitezkeenak, ez ezagutzeak, ez du pertsona edo erakunde kontratista kontratua betetzeko betebeharretik salbuetsiko.

4. KLAUSULA. LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA, BALIOIO ZENBATETSIA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.

4.1. Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia:

Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua 761.095,98 €koa da (BEZ barne).

I. Loteari dagokionez, Elorsoro kiroldegia, Madalensoro pilotalekua eta udako igerilekuak bi urtez energia elektrikoz hornitzeari buruzkoa, 370.843,29 €koa da, gehi 77.877,09 €, % 21eko BEZari dagozkionak, 448.720,38 € guztira.

II. Lotearen lizitaziorako oinarrizko aurrekontua, Elorsoro kiroldegia bi urtez gas naturalez hornitzeari buruzkoa, 297.500,57 €koa da, gehi 14.875,03 €, %5eko BEZari dagozkionak, 312.375,60 € guztira.

Kontratuaren balio zenbatetsia 1.336.687,72 €koa da (BEZ kanpo).

I. Loteari dagokionez, Elorsoro kiroldegia, Madalensoro pilotalekua eta udako igerilekuak energia elektrikoz hornitzeari buruzkoa, 741.686,58 €koa da, kopuru hauetan banatuta:

- Hasierako iraupena: 370.843,29 €
- Balizko luzapenak: 370.843,29 €
- Aurreikusitako kontratu-aldaketak: ez dago

II. Lotearen balio zenbatetsia, Elorsoro kiroldegirako gas naturalaren hornidurari buruzkoa, kontratuaren iraupen osorako, aurreikusitako luzapenak kontuan hartuta, 595.001,14 €-koa da, kopuru hauetan banatuta:

- Hasierako iraupena: 297.500,57 €
- Balizko luzapenak: 297.500,57 €
- Aurreikusitako kontratu-aldaketak: ez dago.

4.2.Kontratuaren prezioak:

I. Lotean, energia elektrikoaren prezioa indexatu egingo da, eta proposamen ekonomikoan "kudeaketa-kostua" baino ez da baloratuko.

PREZIO INDEXATUAREN FORMULA:

Prezioa = 1,015 x Galerak x (Eguneko merkatua + Doikuntza-merkatuak + Araututako prezioak + Kudeaketa-kostua)

Non:

***Galerak** = Tarifari, prezioaren formulari, lotutako garraio- eta banaketa-galerei dagokien ehunekoa aplikatzen da. Horrek esan nahi du fakturatu behar den kontsumitutako energia zentraleko barretara igotzea. REEren C2 itxieran argitaratutako datuak erabiliko dira.*

***Eguneko merkatua** = Merkatuko Operadorearen Eguneko Merkatuaren Orduko Prezioa (OMIE)*

***Doikuntza Merkatuak** = Sistemaren Operadorearen Doikuntza Merkatuen Prezioak (REE): PBF Murrizketa Teknikoen Prezioa*
TR Murrizketa Teknikoen Prezioa
Murrizketa Teknikoen Prezioa
Intraeguneko Eskari Prezioa
Bigarren Mailako Banda Prezioa
Igotzeko Erreserba Potentzia
Prezioa saldoa
Prezioen Desbideratzea
PO Saldoa 14.6
Potentzia Faktorearen Kontrol prezioa
Energia Ez-betetze Prezioa
Zerbitzu Prezioa Balantzea
Etengarritasuna

***Araututako prezioak** = Indarrean dagoen araudian araututako kontzeptuen prezioak: Gaitasunagatik Ordaindutako Prezioak*
Merkatuko Operadorearen Ordainsari Prezioa
Sistemaren Operadorearen Ordainsari Prezioa

***Kudeaketa-kostua** = Kontratua kudeatzeagatiko prezioa.*

*(1,015 zifrak merkaturatzaileak bere gain hartu behar dituen **udal-tasei** egiten die erreferentzia, energiagatik fakturatutako zenbateko osoaren % 1,5ari dagokiona)*

Kudeaketa-kostu horiek izango dira baloratu beharreko bakarrak; izan ere, gainerako kostuak aplikatu beharreko araudiak finkatuko ditu, edo OMIEren eguneroko merkatuaren orduko prezioari indexatuta egongo dira, bai eta Espainiako Sare Elektrikoaren (REE) doikuntza-merkatuen prezioen baturari ere.

Energiaren prezio unitarioek mega Watio orduko eurotan adieraziko dira (€/ MWh).

II. Lotean, prezioa gasaren termino finkoa eta gasaren energia terminoa finkatuz zehaztuko da. Lehenengoan, termino finkoan, euro/hilean zehaztuko da, eta bigarrenean, termino aldakorrean, euro/kWh-tan.

Interesdunek egindako proposamenetan barnebilduta daudela ulertuko dira, ondorio guztietarako, kontrata-prezioak eta kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten mota guztietako zergak. Hala ere, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eskaintzetan banakatuta agertu beharko da, kontratuari aplikatu beharreko tipoa eta zenbatekoa adierazita.

5. KLAUSULA: KONTRATUAREN IRAUPEN-EPEA

5.1. Kontratuaren iraupena:

Kontratuaren iraupena, aldeen eskubide eta betebeharrei dagokienean, kontratua perfekzionatzen duen formalizazioaren hurrengo egunetik hasi eta behin betiko bermea itzultzen denera artekoa izango da.

5.2. Kontratuaren prestazioak gauzatzeko gehieneko epea:

Kontratuak **BI (2) URTEKO** indarraldia izango du, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik edo kontratu-agirian ezarritako datatik zenbatzen hasita, eta bi luzapen-aldi aurreikusten dira, bakoitza urtebetekoa.

Luzapena kontratazio-organoak berariaz erabaki beharko du. Nahitaezkoak izango dira enpresaburuarentzat, baldin eta esleipendunak kontratuaren iraupen-epea amaitu baino hiru hilabete lehenago aurreabisurik aurkezten ez badu, eta SPKLren 29.2. artikuluko azken paragrafoan aurreikusitako zirkunstantzia gertatzen ez bada.

Energia elektrikoaren edo gas naturalaren horniduraren hasiera data, kontratua egungo esleipenduna ez den beste enpresa bati esleitu ondoren, energía elektrikoaren eta gas naturalaren garraiolari eta banatzaileak sarbide-kontratuak lagatzearen baldintzapean egongo da; hala, kasu horietan, hornidura sarbide horiek indarrean jartzen diren egunean hasiko da, eta data hori erakunde kontratatzailearen zerbitzu ekonomikoei jakinarazi beharko zaie.

6. KLAUSULA. ESPEDIENTEA IZAPIDETZEA ETA ESLEITZEKO MODUA

Kontratu hau izapidetze arruntaren bidez eta **ERREGULAZIO HARMONIZATUKO PROZEDURA IREKIAREN** bidez esleituko da, SPKLren 156. artikuluan eta 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, eskaintza onenaren aldeko publizitate- eta lehia-printzipioak bermatuz.

I. Loteari dagokionez, kontratuaren esleipena hainbat irizpide erabiliz egingo da, Baldintza Agiri honen 10.1 klausulan aurreikusitakoaren arabera.

II. Loteari dagokionez, kontratuaren esleipena prezioarekin lotutako irizpide bakarra erabiliz egingo da, Baldintza Agiri honen 10.2 klausulan aurreikusitakoaren arabera.

7. KLAUSULA. LIZITATZAILEEI INFORMAZIOA

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialaz gain, lizitazio honen iragarkia Oiartzungo Udalaren Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da (www.oiartzun.eus), Euskadiko Kontratazio Plataforman dagoena.

Era berean, kontratazio honen espedientea eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa Oiartzungo Udaleko Idazkaritza Saileko Kontratazio Unitatean aztertu ahal izango da, bulegoko orduetan, Kontratatzailearen Profilean eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik proposamenak aurkezteko epea amaitzen den arte.

8. KLAUSULA. KONTRATATZEKO GAITASUNA

8.1. Kontratatzeko gaitasuna:

SPKLren 65. artikuluaren arabera, kontratatzeko ahalmena dute jarduteko gaitasun osoa duten, SPKLren 71. artikuluan adierazitako kontratatzeko debekuren baten eraginpean ez dauden eta SPKLren 74., 75. eta 76. artikuluetan ezarritakoaren arabera kaudimen

ekonomikoa eta finantzarioa, teknikoa edo profesionala egiaztatzen duten pertsona natural edo juridikoak, espainiarrak edo atzerritarrak.

Pertsona juridikoak beren estatutuen edo sortze-arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan dauden prestazioak dituzten kontratuen esleipendun izan ahalko dira soilik.

Kontratistek, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak egiteko eska daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Erkidegoko enpresei, erkidegokoak ez direnei eta empresa elkarteei dagokienez, SPKLren 67., 68. eta 69. artikuluetan, hurrenez hurren, xedatutakoa beteko da.

SPKLren 77.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, **HORNIDURA** kontratuetarako ez da enpresaburuaren sailkapena eskatuko.

Enpresaburu-izaera duten eta aldi baterako elkarteetan elkartuta aurkezten diren pertsonak edo erakundeak solidarioki behartuta egongo dira. Elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik eratortzen diren eskubideak egikaritzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordea izango duena, harik eta kontratua amaitzen den arte, zenbateko handiko kobrantza eta ordainketetarako eman dezaketen botere mankomunatuen kalterik gabe.

SPKLren 75. artikuluan ezarritakoaren arabera beste enpresa batzuen gaitasunetara jotzen bada, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak erakunde horien artean izenpetutako idatzizko konpromisoa aurkeztuko du, kontratua iraupen osoan gauzatzeko behar diren baliabideak izango dituela egiaztatzeko. Konpromisoan berariaz jasoko da errekurritzen den erakundeak modu solidarioan erantzungo diela esleipendunaren betebeharrei, kaudimen ekonomikoa edo finantzarioa integratzen bada.

Errekurritzen den erakundeak ez du kontratatzeko debekurik izango, eta hori egiaztatzeko, eskatzen zaizkion egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

Baldintza berberetan, SPKLren 69. artikuluan aipatzen diren aldi baterako elkarteetan elkartuta lehiatzen diren enpresaburuek aldi baterako elkarteaz kanpoko erakundeen gaitasunetara jo ahal izango dute.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du lote bakoitzean. Gainera, banaka proposamen bat aurkeztu duen lizitatzaileak ezin izango du beste batzuekin aldi baterako elkartuta proposamenik aurkeztu edo aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan agertu. Lizitatzaileren batek baldintza horiek betetzen ez baditu, ez dira

onartuko hark sinatutako proposamen guztiak.

8.2. Kontratatzeko gaitasuna egiaztatzea:

Enpresaburuen **jarduteko gaitasuna** eta **kontratatzeko debekurik eza Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean** inskribatuz egiaztatu ahal izango da.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta egoteak egiaztatzen ditu, bertan jasotakoaren arabera eta kontrako frogarik ezean, enpresaburuaren gaitasun-baldintzak, honako hauei dagokienez: nortasuna eta jarduteko gaitasuna, ordezkaritza, gaikuntza profesionala edo enpresariala, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala, sailkapena eta inskribatutako gainerako inguruabarrak, bai eta bertan jaso beharreko kontratatzeko debekuak dauden ala ez ere.

Halaber, **jarduteko gaitasuna** SPKLren 84. artikuluan ezarritakoaren arabera egiaztatu ahal izango da:

1. Pertsona juridikoak diren enpresaburuek jarduteko duten gaitasuna egiaztatzeko, hure ordezkaritzen duen eta haren izenean porposamena sinatzen duen pertsona fisikoaren zinpeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, horretarako ordezkaritza legala duela egiaztatzen duena. Era berean, eratze-eskritura edo -agiria, estatutuak edo sortze-akta aurkeztuz egiaztatu ahalko da, jarduera erregulatzen duten arauak jasotzen dituztenak, pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta, hala badagokio.
2. Espainiarrak ez diren eta Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalitatea duten enpresaburuek jarduteko gaitasuna, dagokion erregistroan inskribatuta egiaztatuko dute, ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera, edo zinpeko aitorpena edo ziurtagiria aurkeztuz, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan, aplikatu beharreko Erkidegoko xedapenekin bat etorriz.
3. Gainerako enpresaburu atzerritarrek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomazia Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza kokatuta dagoen lurralde-eremuko Kontsuletxeko Bulegoaren txostenarekin.
4. Enpresaburu pertsona fisikoek, NANaren fotokopia aurkeztuta.

Kontratatzeko debekurik eza, kontratatzeko debekurik ez dagoela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpenrekin egiaztatu beharko da.

Indarrean dagoen araudiaren arabera inskribatuta eta baimenduta dauden enpresek bakarrik parte hartu ahal izango dute lizitazio honetan. Horretarako

beharrezkoa da Banatzaile, Merkaturatzaile eta Kontsumitzaile Kualifikatuen Administrazio Erregistroan inskribatuta egotea. Jarraian transkribatzen dira eskatutako baldintzak:

1. Energia elektrikoaren hornidura-kontratuaren esleipendunak aldez aurreko administrazio-baimena izango du, administrazio eskudunak emandakoa, eta administrazio-erregistroan inskribatuta egon beharko du, Sektore Elektrikoari buruzko Legean adierazitakoaren arabera, abenduaren 22ko 25/2009 Legeak, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzko Legera egokitzeko zenbait lege aldatzen dituenak, eta otsailaren 26ko 198/2010 Errege Dekretuak, sektore elektrikoari buruzko zenbait xedapen 25/2009 Legean xedatutakora egokitzen dituenak, aldatua. Gaikuntza hori egiaztatuta geratuko da "Energiaren Batzorde Nazionalaren Energia Elektrikoaren Merkaturatzaileen Zerrendan" sartuta.

2. Gas naturalaren kontratuaren esleipendun den merkaturatzaileak bere proposamenean zehaztu beharko du Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak emandako behin betiko inskripzio edo identifikazio zenbakia, Kanalizazio bidezko Gas Erregaien Banatzaileen, Merkaturatzaileen eta Kontsumitzaile Kualifikatuen Administrazio Erregistroaren barruan, LSHn eta gas naturalaren instalazioen garrai, banaketa, merkaturatze, hornitze jarduerak eta baimentzeko prozedurak arautzen dituen abenduaren 27ko 1434/2002 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, edo "Energiaren Batzorde Nazionalaren Gas naturalaren Merkaturatzaileen Zerrendan" agertu beharko da, SELk xedatzen duen bezala, abenduaren 22ko 25/2009 Legeak, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzko Legera egokitzeko zenbait lege aldatzen dituenak aldatua.

Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa honela egiaztatuko da lote bakoitzean:

1. **Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioaren egiaztapena** (SPKLren 87. artikulua): lizitatzailearen urteko negozio-bolumena kontratuak aipatzen duen eremuan, enpresariaren eratze-dataren edo jardueraren hasiera-dataren eta eskaintzen aurkezpenaren arabera eskuragarri dauden azken hiru ekitaldien barruan ekitaldi onenari dagokionean. Egiaztatu beharko da ekitaldi horietakoren batean bere negozio-bolumena **kontratuaren balio zenbatetsia baino handiagoa dela gutxienez bat eta erdian**, hau da:

I. Lotea	1.112.529,87 €
II. Lotea	892.501,71 €

Urteko negozio-bolumena egiaztatzeko, onartutako eta Merkataritza Erregistroan gordailututako urteko kontuak erabiliko dira, baldin eta enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago eta, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailututa daudenak. Baldintza hori betetzat joko da baldin eta lizitazio-iragarkia baino hiru hilabete lehenago aurkeztu badira erregistro ofizialean, nahiz eta oraindik erregistratu gabe egon. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek urteko negozio-bolumena egiaztatuko dute Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentarioen liburuen eta urteko kontuen bidez, urteko negozio-bolumena jasotzen duen zerga-aitorpenaren bidez edo urteko negozio-bolumenaren ZAEAren ziurtagiriaren bidez.

Baliozko arrazoi batengatik, operadore ekonomikoa urteko negozio-bolumena aurkezteko moduan ez badago, arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko aseguru bat dagoela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du. Aseguru horren zenbatekoa kontratuaren balio zenbatetsiaren berdina edo handiagoa izango da, eta administrazioarekiko eta hirugarrenekiko erantzukizunak estaliko ditu.

Kaudimena kanpoko bitartekoen bidez egiaztatzeko (SPKLren 75. artikulua), beharrezkoa izango da frogatzea kontratua gauzatzen den bitartean badituela kaudimen eta baliabide horiek, eta errekurritzen den erakundeak ez duela kontratatzeko debekurik, eta beharrezkoa izango dela erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztea.

Esleipendun suertatuz gero, lizitatzaileak kaudimena egiaztatzeko aurkeztu dituen baliabide berberekin gauzatuko du kontratua. Aurreikusi ezin diren arrazoiengatik bakarrik ordeztu ahal izango ditu, kaudimen baliokidea egiaztatzen duten beste bitarteko batzuekin eta Administrazioaren dagokion baimenarekin.

Enpresaburuen Elkarteetan, kaudimena zehazteko, elkarteko kide bakoitzaren egiaztapen-ezaugarriak metatuko dira.

2. **Kaudimen teknikoaren egiaztapena:** SPKLren 89.1 artikuluan jasotako bitarteko honekin egiaztatuko da: Azken hiru urteetan egindako hornidura nagusien (berdinak edo antzekoak) zerrenda zehatza, horien zenbatekoa, datak eta destino publikoa edo pribatua adierazita, organo eskudunak emandako edo bisatutako exekuzio onaren ziurtagirien bidez abalatuta, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, edo hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez edo, halakorik ezean, enpresaburuaren erantzukizunpeko adierazpen baten bidez. **Gutxieneko baldintza izango da exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa lotearen urteko balio zenbatetsiaren % 70ekoa edo hortik gorakoa izatea**.

Kontratazio-organoak aurkeztutako ziurtagiriei eta dokumentuei buruzko argibideak eskatu ahal izango dizkie lizitatzaileei, edo, bestela, beste agiri osagarri batzuk aurkezteko eskatu ahal izango die, SPKLren 95. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Kaudimena kanpoko bitartekoen bidez egiaztatzeko (SPKLren 75. artikulua), beharrezkoa izango da frogatzea kontratua gauzatzen den bitartean badituela kaudimen eta baliabide horiek, eta errekurritzen den erakundeak ez duela kontratatzeko debekurik, eta beharrezkoa izango da erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztea.

Enpresaburuen elkarteetan, kaudimena zehazteko, elkarte horretako kide bakoitzaren egiaztapen-ezaugarriak metatuko dira.

9. KLAUSULA. LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

9.1. Aurkezpen elektronikoa:

Lizitazio hau elektronikoa da. Lizitatzaileek elektronikoki prestatu eta aurkeztu beharko dituzte eskaintzak nahitaez, Oiartzungo Udalaren kontratatzailearen profilaren bidez, Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman dagoena (www.contratación.euskadi.eus). Zerbitzu horiek erabiltzeak esan nahi du:

- Lizitatzaileak eskaintzak telematikoki prestatzea eta aurkeztea.
- Sistemak eskaintzen zaintza elektronikoa egitea.
- Dokumentazioa plataformaren bidez irekitzea eta ebaluatzea.

9.2. Eskaintzak aurkezteko epea:

30 egun natural (SPKLren 156.3 artikuluko c) idatz-zatia) lizitazio-iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera (EBAO) bidali eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Interesdunek azken eguneko 23:59ak arte aurkeztuko dituzte proposamenak.

Eskaintza elektronikoa eta horrekin batera doan beste edozein dokumentu elektronikoki sinatu beharko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 10. artikuluan onartutako sinadura-sistemetako baten bidez, eta **PDF formatuan aurkeztea eta elektronikoki sinatzea gomendatzen da**.

Lizitatzaileek ezin izango dute beren proposamena erretiratu bi hilabeteko epean, proposamenak irekitzen direnetik kontatzen hasita. Epe hori hamabost egun baliodunez luzatuko da, baldin eta SPKLren 149.4 artikuluak, eskaintza anormalki baxuei buruzkoak, aipatzen dituen izapideak egin behar badira. Proposamen bat behar ez bezala kenduz gero,

lizitatzaileak ezingo du administrazio publikoekin kontratatu, SPKLren 71.2 a) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, aldi berean, behin-behineko bermea konfiskatuko du, SPKLren 106. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Artxiboen edukia ireki arte isilpean gordeko dela bermatzeko, tresnak fitxategi horiek zifratuko ditu bidalketan.

Behin aurkezpena eginda, tresnak bidalketa-frogagiri bat emango dio erakunde lizitatzaileari, biltegiratu eta inprimatu daitekeena, denbora-zigiluarekin.

Lizitatzaileak eskaintza aurkezteak esan nahi du Baldintza Agiri honetako klausulak eta gainerako kontratu agiriak baldintzarik gabe onartzen dituela, inolako salbuespenik gabe, bai eta aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta kontrataziorako eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditula adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena ere. Adierazpena faltsua bada, SPKLren 71.1.e) artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

9.3 LIZITATZAILEEK LOTE BAKOITZEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA: hiru gutun-azal edo artxibo elektroniko (II. Loteko lizitatzaileen kasuan, ez da beharrezkoa izango "B" artxiboa aurkeztea, ez baitago balio-judizioaren bidezko balorazio-irizpiderik).

Lizitatzaileek lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatutako artxibo elektronikoak aurkeztu beharko dituzte, klausula honetan horietako bakoitzerako zehazten den edukiarekin. Fitxategi bakoitzean, edukia jasoko da orri edo fitxategi bereizi batean, zenbakitan adierazita.

"A" ARTXIBO ELEKTRONIKOA: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA"

Artxibo horrek honako dokumentu hauek izango ditu:

a) **Gaitutako helbide elektronikoa**.
Gaitutako helbide elektroniko bat izendatzea, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera. Bertan, kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak egingo dira.

b) **Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena**.
Adierazpen horretan, lizitatzaileak adieraziko du Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela. Adierazpena Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) formularioari egokituko zaio.

Hala ere, kontratazio-organoak edo -mahaiak, prozeduraren egokitasuna bermatze aldera, esleipena egin aurreko edozein unetan eskatu ahal izango du lizitatzaileek kontratuaren esleipendun izateko agiri honetan aipatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkez ditzatela.

c) Aldi baterako empresa elkarte batean (ABEE) parte hartzen duten operadore ekonomikoen kasuan, kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. Era berean, kontratuaren esleipendun izanez gero, ABEEa formalki eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, eta izenak, inguruabarrak eta bakoitzaren partaidetza ABEE horretan zehaztu beharko dituzte.

d) Atzerriko enpresek, erantzukizunpeko adierazpenaz gain, Espainiako edozein motatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla adierazten duen adierazpena aurkeztuko dute, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta, hala badagokio, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egingo diote.

e) SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen den kasuetan, horietako bakoitzak ere erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du.

Legean eta agiri honetan eskatzen diren nortasun-, gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen direla jakiteko une erabakigarria proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango da.

"B" ARTXIBO ELEKTRONIKOA: "BALIO-JUDIZIOEN BIDEZKO BALORAZIO-IRIZPIDEAK"

Memoria tekniko bat izango du, Baldintza Agiri honen 10.1 klausulan zehaztutakoaren arabera, A atalean (balio-judizioen bidezko balorazio-irizpideak).

Artxibo honetan ezin izango da beste fitxategian (automatikoki baloratu daitekeen dokumentazioari dagokiona) jaso behar den daturik agertu. Emaitza lizitaziotik kanpo uztea izango da eta ez da "C" fitxategia irekiko.

"C" ARTXIBO ELEKTRONIKOA: "BALORAZIO AUTOMATIKORAKO IRIZPIDEAK"

Proposamen ekonomikoa jasoko du.

I. Lotearen kasuan, "kudeaketa-kostua" edo kontratua kudeatzeagatiko prezioa sartuko da. "Kudeaketa-kostua" merkaturatze-marjina bakarrik sartuko da.

II. Lotearen kasuan, gasaren termino finkoa eta gasaren energia terminoa zehaztuko dira. Lehenengoa, termino finkoa, euro/hilean zehaztuko da, eta bigarrena, termino aldakorra, euro/kWh-tan.

Proposamenetako bat ez badator bat aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, zenbatekoari dagokionez akats nabarmena badu edo akatsen bat badu edo bideraezina egiten duen ahulguneren bat badu aurkezten duen lizitatzailearen arabera, kontratazio-mahaiak atzera botako du ebazpen arrazoitu baten bidez.

Prezioen eskaintzaren banakapenean antzeman daitezkeen akats aritmetikoak zuzentzeko, oinarrizko prezioaren eta aplikagarri den BEZaren zifrak hartuko dira baliozkotzat, eta ofizioz egingo dira guztizko prezioa lortzeko kalkuluak.

Artxibo honetan ez da inola ere sartuko balio-judizioen bidezko balorazio-irizpideei dagokien memoria teknikoa edo beste edozein datu, "B" artxiboan sartu behar baitira. Datu horietako edozein "C" fitxategian sartzea ez da baloratuko, eta, beraz, balorazio automatikoko irizpideen puntuak baino ez zaizkio esleituko.

10. KLAUSULA. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Esleipena **eskaintza onuragarrienaren bidez egingo da, eta bi lote bereizita kontuan hartuta**: bata, Elorsoro kiroldegia, Madalensoro pilotalekua eta udako igerilekuak energia elektrikoz hornitzeari dagokiona, eta bestea, Elorsoro kiroldegia gas naturalez hornitzeari dagokiona. Enpresa lizitatzaile bakoitza lote batera edo bietara aurkeztu ahal izango da.

10.1. **I. LOTEA** (energia elektrikoaren hornidura) ESLEITZEKO IRIZPIDEAK:

A) BALIO-IRITZIEN BIDEZKO BALORAZIO-IRIZPIDEAK (45 PUNTU):

Honako alderdi hauek ebaluatuko dira:

10.1.1) Asistentzia. Bezeroarentzako arreta, epeak eta baldintzak. **8 puntu**

- Konpainia merkaturatzaileen aldetik jasotako laguntza, hainbat puntutan, hala nola gorabeheretan, fakturazioan eta hornidura berrien altetan (behin-behinekoak eta/edo behin betikoak).
  Puntu honetan, kudeaketa horiek egiteko euskarria eta arintasuna baloratzen dira. Ezinbestekotzat jotzen da konfiantzazko koordinatzaile edo kontaktu bat izatea, Udaletik hurbil egongo dena eta gai horietan euskaraz zein gaztelaniaz lagunduko duena, kudeaketak bizkortasunez eta Udalak zehaztutako epeetan egin ahal izateko.

10.1.2) Asistentzia. Informazioa eta bilerak. **8 puntu**

- Fakturazioari, kontsumoei, horniduraren kalitatearen inguruko erreklamazioei eta abarri buruzko informazioa emateko plana.
- Bilera-plana.

10.1.3) Tarifak/potentziak eta erreaktibo bidezko hornidura aldizka berrikustea. **8 puntu**

Enpresa lizitatzaileek aldizkako berrikuspen-plan bat aurkeztu beharko dute. Plan horretan oinarrituta, kontratuak irauten duen bitartean berrikuspen bat egingo da, horniduren potentziak optimizatzeko eta energia erreaktiboa konpentsatzeko. Berrikuspenaren aldizkakotasuna zehaztu behar da.

Kontsumoak aldian-aldian aztertzea baloratuko da, une oro optimizatuta egon daitezen.

10.1.4) Kontratuen aldaketari buruzko informazioa. **8 puntu**

Potentzia-kontratuak aldatzeko eta egokitzeko prozesuari eta energia erreaktiboaren konpentsazioari buruzko informazio-protokoloa, egutegi xehatua aurkeztuta.

10.1.5) Prestakuntza eta kontzientziazio-kanpainak. **8 puntu**

Alde horretatik, enpresa eskaintzaileek "Langile tekniko eta instituzionalentzako prestakuntza-programa" bat aurkez dezatela eskatzen da, eraginkortasunari, faktura elektrikoaren ulermenari eta abarri dagokienez.

Garrantzitsua izango da prestakuntza-ekintzaren/ekintzen, gaien, egutegiaren eta prestutasunaren planteamendu zehatza aurkeztea, Udalak egindako eskaera espezifikoetara egokitzeko.

Prezioan sartuta dauden prestakuntza-ekintzak bakarrik baloratuko dira (ez dira kontuan hartuko Udalari gainkostua dakarkiotenak). Balorazioan, prestakuntza-proposamenaren xehetasun-maila eta irismena hartuko dira kontuan.

Puntu honetan, OIARTZUNgo ikastetxe publikoetan edo ikastetxeetan prestakuntza-ekintzak merkaturatzen dituzten konpainiek egindako ekarpena baloratuko da.

10.1.6) Hobetzeko proposamenak. **5 puntu.**

Energia berriztagarriak ezartzeko azterlanak eta/edo energia aurrezteko beste proposamen batzuk egiteko konpromisoa baloratuko da.

B) BALORAZIO AUTOMATIKORAKO IRIZPIDEAK (55 PUNTU)

Merkaturatzailearen "**kudeaketa-kostua**" €/ MWh bakoitzeko baloratuko da, 55 puntura arte, formula honen arabera:

Formula: Cx = 55* (Cmin/X)

Non:
- Cx = Eskaintza bakoitzaren puntuazioa eskainitako kostu-prezioarentzat
- Cmin = eskainitako gutxieneko kostua
- X = eskaintza bakoitzaren prezioa.

Emaitza 4 hamartarretara biribilduko da.

10.2. **II. LOTEA** ESLEITZEKO IRIZPIDEAK (gas naturalaren hornidura):

Proposamenak baloratzeko eta eskaintzarik onena zehazteko, **balorazio automatikoko esleipen-irizpide bakarra hartuko da kontuan**, hau da, **prezioa**.

Lizitatzaileek **gas termino finkoa** eta **gas energia terminoa** finkatuz aurkeztuko dute beren eskaintza. Lehenengoa, termino finkoa, euro/hilean zehaztuta, eta bigarrena, termino aldakorra, euro/kWh-tan.

Eskaintzarik onena GUZTIZKO FINKOA eta GUZTIZKO ALDAKORRA atalean prezio baxuena lortzen duena izango da, eta ondorengo taularen balorazioa emango da, hau da, Elorsoro kiroldegiaren horniduran Oiartzungo Udalarentzat kostu txikiena duena:

KONTZEPTUA	PUNTUAZIOA
TERMINO ALDAKORRA. Eskaintza hoberentzat joko da guztizko prezio aldakor txikiena lortzen duena euro/kWh-tan.	95
TERMINO FINKOA GUZTIRA: Eskaintza onena izango da euro/hilean preziorik txikiena lortzen duena.	5

Termino aldagarriari 95 puntu emango zaizkio gehienez, merkaturatzailearen euro/kWh-ko termino aldakorraren kostua kontuan hartuta, formula honen arabera:

Formula: Cx = 95* (Cmin/X)

Non:
- Cx = Eskaintza bakoitzaren puntuazioa eskainitako kostu-prezioarentzat
- Cmin = eskainitako gutxieneko kostua
- X = eskaintza bakoitzaren prezioa.

Emaitza 6 hamartarretara biribilduko da.

Termino finkoagatik 5 puntu emango dira gehienez, merkaturatzailearen euro/hilean termino finkoaren kostua kontuan hartuta, formula honen arabera:

Formula: Cx = 5* (Cmin/X)

Non:
- Cx = Eskaintza bakoitzaren puntuazioa eskainitako kostu-prezioarentzat
- Cmin = eskainitako gutxieneko kostua.
- X = eskaintza bakoitzaren prezioa.

Emaitza 6 hamartarretara biribilduko da.

11. KLAUSULA. LOTE BAKOITZAREN KONTRATUA ESLEITZEA

11.1. Kontratazio-mahaiaren osaera:

Kontratazio-mahaia proposamenak baloratzeko eta administrazio-agiriak kalifikatzeko organo eskuduna izango da, eta SPKLren 326. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jardungo du.

Kontratazio-mahaiak edozein unetan eskatu ahal izango ditu enpresek aurkeztutako dokumentazioa aztertzeko edo eskaintzak baloratzeko beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko eta juridikoak.

11.2. Eskaintzak irekitzea:

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, honako jarduera hauek egingo dira:

"A" FITXATEGI ELEKTRONIKOAREN IREKIERA

Mahaiak, ekitaldi pribatuan, "A" artxiboa elektronikoki irekiko du, eta bertan jasotako dokumentazioa kalifikatuko du. SPKLren 141.2 artikulua aplikatuz, mahaiak ikusten badu aurkeztutako dokumentuetan zuzendu daitezkeen akatsak daudela, eragiten dien lizitatzaileei jakinaraziko die, eta hiru eguneko epea emango die akats horiek zuzentzeko.

"B" FITXATEGI ELEKTRONIKOAREN IREKIERA

"B" artxiboan aurkeztutako dokumentazioa, balio-judizio baten mende dauden irizpideak jasotzen dituena, ekitaldi publikoan irekiko da, kontratatzailearen profilean argitaratuko den lekuan, egunean eta orduan.

"C" FITXATEGI ELEKTRONIKOAREN IREKIERA

"B" artxiboan jasotako dokumentazioa ireki eta baloratu ondoren, kontratazio-mahaiak "C" artxiboa irekiko du ekitaldi publikoan, Udalaren kontratatzailearen profilean iragarriko den tokian, egunean eta orduan.

Ekitaldi horretan, eskaintza bakoitzaren balio-judizioaren mendeko irizpideei emandako puntuaketa jakinaraziko da.

ESKAINTZEN SAILKAPENA

Irizpide guztiak baloratu ondoren, aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu kontratazio-mahaiak, handienetik txikienera, eta, dagozkion ariketak egin ondoren, kontratua esleitzeko proposamena helaraziko dio kontratazio-organoari.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko proposatutako

lizitatzailearen alde. Eskubide horiek ez ditu eskuratuko Administrazioaren aurrean kontratua formalizatu arte.

SPKLren 149. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ohiz kanpoko baxutzat jo daitezkeen proposamen bat edo batzuk identifikatzen direnean, eskaintzen izaera anormalki baxua deklaratzeko, aldez aurretik lizitatzaileari edo, hala badagokio, horrela aurkeztu duten lizitatzaileei entzun beharko zaie. Behar izanez gero, dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa jasoko da. Kasu horretan, kontratazio organoak, lizitatzaileak egindako justifikazioa eta eskatutako txostenak ikusita, Administrazioak nahi bezala bete dezakeen eskaintzarik onuragarrienari esleitzea erabakiko du.

Aitzitik, kontratazio organoak uste badu eskaintza ezin dela bete baxuera anormalen ondorioz, sailkapenetik kanpo utziko du, eta eskaintza onenaren alde esleitzea erabakiko du, sailkatu diren ordenaren arabera.

Enpresa lizitatzaile batek baino gehiagok berdinketa egiten badute, eskaintzak aurkezteko unean egoera hauetakoren batean dauden proposamenak izango dira nagusi (lehentasun-hurrenkeran):

Lehenengo aukera.- Irabazi-asmorik gabeko enpresa edo erakundea izatea, eta gizarte-ekonomiako sareren batean integratuta egotea, Gizarte Ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legearen printzipioen arabera.

Bigarren aukera.- Kontratu honen baldintza agirietako betearazteko baldintza berezien atalean definitutako gizarte-bazterketa jasateko arriskua duten langileen taldeko langile-kopuru bat izatea plantillan. Talde horretako langileen ehunekoak % 2tik gorakoa izan beharko du.

Egindako guztia espedientean jasoko da dagozkion akten bidez. Akta horiek nahitaez egin beharko dira.

LEHENENGO SAILKATUARI ESKAERA

Aurreko jarduerak egin ondoren, kontratazio-zerbitzuek lehen sailkatuari eskatuko diote, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, jarraian adierazten diren jarduketak egin edo dokumentuak aurkez ditzan:

a) Lizitatzailea pertsona fisikoa denean, parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eratzeko edo aldatzeko eskritura, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua eta identifikazio fiskaleko zenbakia, inskripzioa aplikagarri zaion merkataritza-legeriaren arabera eska daitekeenean. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eratze-eskritura edo -agiria, estatutuak edo sortze-egintza erabiliko da, jarduera arautzen duten arauak jasota, eta, hala badagokio, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta.

Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko estatuetako enpresaburuak direnean, dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, ezarrita dauden estatuko legediaren arabera, edo erantzukizunpeko adierazpena edo ziurtagiria aurkeztu beharko dute, aplikatu beharreko Erkidegoko xedapenen arabera.

Gainerako enpresaburu atzerritarrek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute Espainiak dagokion estatuan duen Diplomazia Misio Iraunkorraren edo enpresaren egoitza kokatuta dagoen lurralde-eremuko Kontsuletxeko Bulegoaren txostenaren bidez.

c) Eskaintza sinatzen duenaren ordezkaritzaren egiaztagiria (pertsona hori beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean ari denean).

d) JEZn alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, alta aurkeztuz, uneko ekitaldiari buruzkoa bada, edo JEZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan; bi kasuetan, erantzukizunpeko adierazpen bat ere aurkeztu beharko da, zerga horretan baja eman ez dela adieraziz.

e) Merkatu Elektrikoko Agentearen ziurtagiri eguneratua, OMIEk emana, eta lizitatzailearen kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren egiaztagiriak, bai eta kontratu honi atxikitzeko konpromisoa hartu duen bitartekoak benetan dituela egiaztatzen duen dokumentazioa ere. Nolanahi ere, kaudimen ekonomikoa kontratua formalizatu aurretik aurkeztu beharko da.

f) Enpresaburu bat baino gehiago aldi baterako empresa elkarte gisa aurkezten badira lizitaziora, elkarte hori osatzen duen bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Era berean, proposamenean adieraziko dute ABEEko kide bakoitzak zer helburu duen, horien guztien kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

g) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela egiaztatzen duen agiria, edo Kontratazio organoari zuzenean eskuratzeko baimena ematen dion agiria.

h) Behin betiko bermea eratu dela egiaztatzea. SPKLren 108. artikuluan aurreikusitako edozein modutan eratu ahal izango da, eta bitarteko elektronikoen bidez egiaztatu ahal izango da eraketa.

Dena den, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria aurkezteak salbuetsi egingo du enpresa lizitatzailea Erregistroan jasotako inguruabarrak justifikatzen dituen dokumentazioa aurkeztetik, bertan aurreikusitakoaren arabera eta kontrako frogarik ezean.

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da; kasu horretan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ari dagokion zenbatekoa eskatuko zaio, BEZik gabe, zehapen gisa, eta kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeran, eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Behin betiko bermea aurkeztu ondoren, esleipendun gisa proposatutako lizitatzaileari esleituko zaio kontratua, eta, esleitu ondoren, formalizatu egingo da.

Esleipenak arrazoitua izan beharko du, hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta 15 eguneko epean kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da.

12. KLAUSULA. LOTE BAKOITZAREN KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

Kontratua formalizatu egin behar da, eta klausuletan besterik adierazten ez bada, kontratazio-organoaren egoitza dagoen lekuan egin dela ulertuko da. Agiri hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publiko bihurtzeko, eta bere kontura izango dira dagozkion gastuak.

SPKLren 44. artikuluaren arabera, **kontratazio arloko errekurtso berezia** aurkez daiteke kontratu honen aurka; beraz, ezingo da formalizatu lizitatzaileei eta hautagaiei esleipenaren jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen.

Erakunde esleipenduna **aldi baterako empresa elkarte** bat bada, kontratua formalizatu aurretik, haren osaketaren eskritura publikoa aurkeztu beharko da. Eskritura horretan zehaztuko dira, formalizazioa eta iraupena, zeina kontratuaren iraupenarekin bat etorriko den, harik eta erabat azkentzen den arte, partaidetza-portzentaiak eta aldi baterako elkartearen erabateko ordezkaritza izango duen pertsonaren izendapena.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua adierazitako epearen barruan formalizatzen ez bada, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, BEZik gabe, zehapen gisa. Zenbateko hori behin betiko bermearen aurka ordainduko da, baldin eta eratu bada. Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeran, eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Kontratua aldez aurretik formalizatu gabe ezin izango da hasi gauzatzen, SPKLren 120. artikuluan aurreikusitako larrialdiko izapideen kasuan izan ezik.

Kontratua formalizatzeko iragarkia argitaratzea. SPKLren 154. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontratuaren formalizazioa dagokion kontratuarekin batera argitaratuko da, gehienez ere hamabost eguneko epean kontratua perfekzionatzen denetik, kontratatzailearen profilean. Gainera, formalizazio iragarkia Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratuko da.

13. KLASULA. BALIABIDEEN NAHITAEZKO ATXIKIPENA

Enpresa esleipendunak kontratuaren xede diren hornidurak egiteko behar diren baliabideak izango ditu, lizitazio hau arautzen duen Baldintza Teknikoen Agiriarekin bat etorriz.

14. KLAUSULA. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi hauek ezartzen dira, SPKLren 202. artikuluan xedatutakoaren arabera:

Sozialak edo enpleguari buruzkoak:

• 50 langile baino gehiago dituzten enpresek gutxienez % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonen % 2 izan beharko dute plantillan, elbarriak gizarteratzeari buruzko apirilaren 13ko 13/1982 Legean ezarritakoaren arabera, edo Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren apirilaren 8ko 365/2005 Errege Dekretuan aurreikusitako neurri alternatiboen bidez. Esleipendunak enpresaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko du. Ziurtagiri horretan, plantillako langileen kopuru osoa eta bertan desgaitasuna duten langileen kopuru partikularra jasoko dira, edo, legez aurreikusitako neurri alternatiboak betetzea aukeratuz gero, salbuespen-adierazpenaren kopia bat eta aplikatutako neurri zehatzak jasoko dituen adierazpen bat.

Ingurumenekoak:

• Enpresa kontratistak egiaztatu beharko du kontratu hau indarrean dagoen urte guztietan kontratuan jasotako puntu guztien hornidura elektrikoaren % 100 energia-iturri berriztagarrietatik datorrela. Hornidura baldintza berezi hori betetzen dela egiaztatzeko, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren (MLBN) Elektrizitatearen Jatorria Bermatzeko eta Etiketatzeko Sistemaren (MLBN) aurreko urte naturaleko urteko txostenaren "Enpresa bakoitzaren merkaturatze-nahasketari" dagokion atala aurkeztu beharko du enpresa kontratistak. Iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren portzentaia, enpresa horren merkaturatze-nahasketari dagokionez, % 100ekoa izango da.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi horiek ez betetzea funtsezko betebeharra ez betetzea izango da, eta, ondorioz, Kontratazio organoak kontratua suntsiaraztea eta enpresa kontratatzeko desgaitzea erabaki ahal izango du.

15. KLAUSULA. LOTE BAKOITZAREN KONTRATUA GAUZATZEA

15.1. Kontratuaren arduraduna:

SPKLren 62. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, udaleko elektrikari arduraduna izendatzen da kontratuaren arduradun. Arduradun horri dagokio kontratuaren betearazpena, kontrola eta jarraipena gainbegiratzea, eta hark beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izango ditu, behar bezala gauzatzeko.

Kontratuaren arduradunaren, Kontratazio organoaren ordezkariaren edo kontratua gainbegiratzeko eginkizunak betetzen dituen zerbitzuaren berariazko eginkizunak:

1.- Kontratuan edo xedapen ofizialetan ezarritako Baldintza Teknikoen Agiria eta gainerako baldintza teknikoak interpretatzea.

2.- Fase bakoitzean kontratua gauzatzeko behar diren baliabideak eta antolamendua egon daitezela eskatzea.

3.- Kontratuaren helburuak lortzeko agindu egokiak ematea.

4.- Egin beharreko aldaketei hasiera ematea.

5.- Egindako lanei dagozkien fakturak egitea, adostutako gauzatze- eta ordaintze-epeen arabera.

6.- Lanak behar bezala egiteko eta gainbegiratzeko egoki iritzitako bilerak deitzea. Enpresa esleipendunaren ordezkariak joan beharko dira bilerara, kontratua gauzatzen esku hartzen duten fakultatibo, teknikari, abokatu edo espezialisten laguntzarekin.

7.- Sektore elektrikoaren araudiaren arabera horniduraren kalitate-betebeharrak ez betetzeagatik bidezko kalte-ordainak erreklamatzea, eta esleipendunaren betebeharra izango da banatzaileari erreklamazioa kudeatzea, hala badagokio.

15.2. Betebehar orokorrak:

• Kontratua enpresa kontratistaren arrisku eta menturapean egingo da (SPKLren 197. artikulua), klausuletan eta baldintza-agirietan ezarritakoari zorrotz lotuta, eta kontratazio-organoak kontratua interpretatzeko ematen dizkion jarraibideen arabera. Kontratu hau egiteko baldintzak Baldintza Teknikoen Agirian ezarritakoak izango dira.

• Enpresa kontratistak nahitaez gauzatu behar du kontratu-prestazioa, prozedura hau arautzen duten kontratu-agirien arabera, eta, subsidiarioki, SPKLren arabera, eta edozein jarduketatarako fede onaren printzipiotik eratorritako eskakizunak errespetatuz.

• Enpresa kontratista arduratuko da garatzen dituen lanen kalitate teknikoaz, egindako prestazioez eta emandako hornidurez, bai eta kontratua gauzatzean sortutako ez-egiteek, akatsek, metodo desegokiek edo ondorio okerrek administrazioari edo hirugarrenei eragiten dizkieten ondorioez ere.

• Kontratistaren betebeharra da kontratua gauzatzeko behar diren eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztiak ordaintzea. Kalte eta galera horiek Administrazioaren agindu baten berehalako eta zuzeneko ondorio gisa sortu badira, Administrazioa izango da erantzulea, legeetan adierazitako mugen barruan (SPKLren 196. artikulua).

• Enpresa esleipendunak nahitaezko aseguruak izan beharko ditu.

Kontratistaren kontura izango dira kontratua gauzatzeak dakartzan zergak, tasak eta edozein motatako erabikemenak, bai eta ezarritako edo etorkizunean ezar daitezkeen errekarguak ere. Era berean, esleipendunaren kontura izango dira Udalak ordaindutako lizitazio-iragarki ofizialen gastuak, eta, hala badagokio, kontratuaren formalizazio publikotik eratorritakoak.

15.3. Kontratistaren lan-, gizarte- eta ekonomia-betebeharrak:

Kontratuari atxikitako langileak kontratistaren mende egongo dira soil-soilik, eta ez dute inolako lan-harremanik izango Administrazioarekin, inola ere. Kontratistak enpresaburu

den aldetik berari dagozkion eskubide eta betebehar guztiak izango ditu, eta nahitaez bete beharko ditu lan-arloan, gizarte-segurantzan, laneko segurtasunean eta osasunean indarrean dauden xedapenak. Beraz, xedapen horietan eskatzen diren neurriak hartu beharko ditu, eta horrek sortzen duen gastua bere kontura izango da. Enpresa esleipendunaren erantzukizuna da laneko segurtasunari eta higieneari buruz indarrean dagoen araudi guztia betetzea.

Enpresa esleipendunak enpresa-jardueren koordinaziotik eratorritako betebehar guztiak betetzeko konpromisoa hartzen du, eta udaleko zerbitzu teknikoei hori gauzatzeko behar den informazio guztia emango die.

Enpresa esleipendunak lanak hasi aurretik lan-arriskuen prebentziorako eta laneko segurtasunerako plana eduki beharko du Udalaren eskura, hark hala eskatuz gero. Plan horretan, gutxienez, agiri hauek jaso beharko dira:

• Jarduerari lotutako arrisku orokorrak eta espezifikoak.

• Arrisku horietarako prebentzio-neurri orokorrak eta espezifikoak.

• Lanpostuaren araberako kalifikazioa eta langileen prestakuntza bermatzea laneko arriskuen prebentzioan.

Ondoren, enpresa emakidadunak zerbitzuaren behin betiko Laneko Segurtasun eta Higiene Plana aurkeztuko du.

Era berean, ezinbestekoa izango da enkargatutako lanak egiten dituzten langileei lan horiei dagozkien arriskuen berri ematea, arrisku generikoak zein espezifikoak, eta haien segurtasun pertsonala eta kolektiboa bermatzeko beharrezkoak diren baliabide guztiak ematea. Horretarako, kontratatutako enpresak langile bakoitzaren egiaztagiria aurkeztu beharko du, lanean eragin diezaieketen segurtasun-arauei buruzko informazioa jaso ondoren.

Kontratua deuseztatzeko klausula izango da enpresa esleipendunak ez jakinaraztea Oiartzungo Udalari lan-baldintzen aldaketen ondoriozko arrisku berrien sorreraz eta indarrean dagoen araudia behin eta berriz ez betetzeaz.

Enpresa esleipenduna erabat arduratuko da kontratatutako lanak egin bitartean klausula honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeez, eta erabat onartuko ditu ez-betetze horietatik erator daitezkeen preskripzio eta zehapenak.

Enpresa esleipenduna izango da agiri honetan jasotako lanak egitearen ondorioz hirugarrenei gerta dakizkiekeen istripuen erantzule. Edozein erantzukizun zibil estaltzeko, aseguru egokia izan beharko du.

Oro har, kontratistak erantzukizuna izango du enplegatzaile izateagatik ezartzen zaizkion betebehar guztiengatik, bai eta bere edo bere azpikontratisten eta bateko zein besteko langileen arteko lan-harremana edo beste mota bateko harremana erregulatzen eta garatzen duten arau guztiak betetzeagatik ere. Ezin izango ditu administrazioaren aurke jasanarazi.

15.4. Azpikontratazioa:

Ez da azpikontrataziorik baimentzen. Kontratistak ezingo du hornidura kontratu osoa edo haren zati bat azpikontratatu, energia elektrikoa eta gasa merkaturatzen duen enpresa orok baldintza eta eskakizun tekniko eta ekonomiko bereziak bete behar dituelako Europako eta Espainiako merkatuan.

15.5. Kontratuaren lagapena:

Kontratutik datozen eskubide eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio kontratistak, baldintza-agiriek hala adierazten dutenean, baldin eta lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak ez badira gakoa izan esleipenerako eta lagapenak ez badu merkatuko lehiaren benetako murrizketa eragiten. Lagapena ezin izango zaio hirugarren bati baimendu, horrek kontratistaren ezaugarriak funtsean aldatzen baditu eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementu bat badira.

Kontratazio organoak aldez aurretik eta berariaz baimendu behar du lagapena. Baimen hori emango da, jarraian ezarritako baldintzak betetzen badira. Baimen-eskaerari buruzko ebazpena jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da, eta epe hori igarotakoan, administrazioaren isiltasuna baiezkotzat joko da.

Lagapena egiteko baldintzak:

• Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez egina izatea. Baldintza hori ez da aplikatuko, baldin eta lagapena gertatzean kontratista konkurtsoan baldin badago, nahiz eta likidazio-fasea ireki, edo konkurtsoa deklaratzeko eskumena duen epaitegiari jakinarazi baldin badio negoziazioak hasi dituela birfinantzaketa-akordio bat lortzeko edo hitzarmen-proposamen aurreratu bati atxikipenak lortzeko, konkurtso-legerian aurreikusitako baldintzetan.

• Lagapen-hartzaileak kontratatzeko gaitasuna izatea eta kontratua gauzatzeko fasearen arabera eska daitekeen kaudimena izatea. Behar bezala sailkatuta egon beharko du lagatzaileari baldintza hori eskatu bazaio, eta ez du kontratatzeko debekurik izan beharko.

• Lagapena eskritura publikoan formalizatzea esleipendunaren eta lagapen-hartzailearen artean.

Lagapen-hartzailea lagatzaileari legozkiokeen eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

15.6. Kontratua aldatzea:

Kontratua interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da, SPKLren 203. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan eta moduan.

15.7. Gardentasuna:

Era berean, gardentasunari, informazioa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, enpresa kontratistak administrazioari, aldez aurretik errekerimendua eginda, arau horretan eta udal-esparruan ematen diren arauetan aurreikusitako betebeharrak betetzeko behar duen informazio guztia eman beharko dio.

15.8. Konfidentzialtasuna:

Konfidentzialtasunari dagokionez, SPKLren 133. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da. Enpresa kontratistak errespetatu egin beharko du kontratua gauzatzean eskuratzen duen informazioa konfidentziala izatea, baldin eta informazio hori, bere izaeragatik, konfidentzialtzat hartu behar bada.

Enpresek emandako informazioa ezin izango da zabaldu, baldin eta konfidentzialtzat jo bada eta Kontratazio organoak hala erabaki badu.

Ondorio horietarako, lizitatzaileek isilpeko izaera hori proposatzen duten agirien zerrenda sartu beharko dute artxibo bakoitzean, izaera horren arrazoia arrazoituz.

16. KLAUSULA. PREZIOAK BERRIKUSTEA, BERME-EPEAK ETA ORDAINKETA-ARAUBIDEA

16.1. Prezioak berrikustea:

Kontratu honetan ez da prezioen berrikuspenik onartuko, aplikatu beharreko aginduzko arau batetik datozenak edo eratorritakoak izan ezik.

16.2. Berme-epea:

Prestazioen izaera dela eta, ez da berme-eperik ezartzen. Hala ere, kontratistak kontratuaren iraunaldian erantzun egingo du entregatutako horniduren kalitateaz eta hornikuntza horiek, edo kontratistak behar bezala ez mantentzeak, administrazio kontratatzailearen ondasunei edo hirugarrenei eragiten dizkieten kalteez.

16.3. Fakturazioa:

Kontratuaren prezioa erregistratutako kontsumo errealei dagokien hileroko ordainketa bidez ordainduko da. Aldez aurretik, enpresa esleipendunak dagokion faktura aurkeztu beharko du, kontratuaren ardura duen udal teknikariak gainbegiratu eta egiaztatuko duena, Baldintza Teknikoen Agirian eskatutakoa kontuan hartuta, eta, hala badagokio, organo eskudunak onetsiko duena. Era berean, fakturak indarrean dauden xedapenetan ezarritako izapideak bete beharko ditu.

Faktura onartu ondoren, SPKLren 198. artikuluan legez aurreikusitako epeetan ordainduko da.

Abenduaren 27ko 25/2013 Legean xedatutakoaren arabera, faktura elektronikoa aurkeztera behartuta dauden erakundeek formatu elektronikoan bidali beharko dituzte fakturak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez, https://www.egoitza.gipuzkoa.eus/eu/inicio/ helbidera, Oiartzungo Udala atxikita baitago, horretarako Udalaren DIR3 kodeak erabiliz:

1. Kontabilitate Bulegoa: L01200631
2. Kudeaketa-organoa: L01200631
3. Izapidetze-unitatea: L01200631

Hilero erregistratutako kontsumo errealak horretarako instalatutako neurketa-ekipoetan jasotako datuekin zehaztuko dira.

16.3.1) Energia elektrikoaren hornidura-fakturak:

Fakturen zenbatekoa, fakturatu beharreko potentziaren eta hilabetean ekoitzitako kontsumoaren arabera banakatuko da. Potentziaren eta energiaren zenbatekoen batuketa horri osagarri/errekargu posibleak gehituko zaizkio, hala nola potentzia eta/edo energia erreaktiboaren gehiegikeriak, dagokion ekipoen alokairua/neurriaren kudeaketaz gain, eta

fakturatutako aldiko potentziaren gehieneko eskaria barne hartuko du. Era berean, zerga elektrikoari eta BEZari dagokien zenbatekoa banakatuko da.

Halaber, fakturarekin batera, hilero erregistratutako kontsumo errealak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko ditu enpresa kontratistak.

Horiek ordaintzeko egindako transferentziaren ondorioz sortutako edozein gastu esleipendunaren kontura izango da soil-soilik.

Gainera, kontratuaren enpresa esleipendunak Energiaren Batzorde Nazionalak ezarritakoa bete behar du, hau da, fakturetan kontsumitutako energia elektrikoaren jatorriari eta horrek ingurumenean duen eraginari buruzko informazioa eman beharko du, edo bestela hura ordezten edo aldatzen duen araudian ezarritakoa.

Udalak eten egingo du adierazitako baldintzak betetzen ez dituzten edo okertzat jotzen diren datuak dituzten fakturak ordaintzeko izapidea, eta itzuli egingo ditu, zuzentzeko.

16.3.2) Gas naturalaren hornidura-fakturak:

Fakturen zenbatekoa hilean izandako kontsumoaren arabera banakatuko da. Zenbatekoen batura horri ekipoen alokairua/neurriaren kudeaketa gehituko zaio. Hidrokarburoen gaineko zergari eta BEZari dagokien zenbatekoa ere banakatuko da.

Eskainitako prezioa bider neurketa ekipoan erregistratutako kWh kontsumoa, hornitutako energiaren zenbateko osoa izango da. Zenbateko horri kontratatutako deskontuak aplikatuko zaizkio, baita dagokion termino finkoa eta neurketa-ekipoaren alokairua ere.

Kontratuak irauten duen bitartean gas naturalaren hornidura arautzen duen araudia aldatzen bada, konpainia esleipendunak, indarrean jartzen denetik, prezio arautuaren osagaiei prezio berriak aplikatuko dizkie.

Laburbilduz, jaulkitako fakturek hura behar bezala interpretatzeko behar den informazio guztia jaso beharko dute (horniduraren datuak; kontratatutako baldintzak; hala badagokio, harremanetarako pertsona, telefonoa; fakturatutako epea; neurketa-ekipoaren alokairuari eta BEZari dagozkien zenbatekoak; hilabete horretako eguneko gehieneko eta gutxieneko kontsumoa eta kontsumo medioa, m3-ko kontsumoa eta hornitutako gasaren Goiko Bero-ahalmena (kWh/m3).

Halaber, fakturarekin batera, hilero erregistratutako kontsumo errealak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko ditu enpresa kontratistak.

Horiek ordaintzeko egindako transferentziaren ondorioz sortutako edozein gastu esleipendunaren kontura izango da soil-soilik.

Udalak eten egingo du adierazitako baldintzak betetzen ez dituzten edo okertzat jotzen diren datuak dituzten fakturak ordaintzeko izapidea, eta itzuli egingo ditu, zuzentzeko.

17. KLAUSULA. EZ-BETETZEAK ETA ZEHAPENAK.

17.1. Ez-betetzeak:

Alderdi horiei dagokienez, kontratua SPKLren eta hura garatzen duen legeriaren mende geratuko da.

Arau-hausteak honela sailkatzen dira: arinak, larriak eta oso larriak.

17.1.1) Arau-hauste arinak dira:

a) Baldintza teknikoen agirian ezarritako dokumentazioa entregatzeko epeak atzeratzea, atzerapen hori adierazitako epearen % 20tik beherakoa denean.
b) Kontratuaren arduradunak horniduren kudeaketari buruz emandako jarraibideak (altak, bajak, tarifa-aldaketak, etab.) ez betetzea edo arretaz ez betetzea.

17.1.2) Arau-hauste larritzat hartzen dira:

a) Baldintza teknikoen agirian ezarritako dokumentazioa entregatzeko epeak atzeratzea, atzerapen hori adierazitako epearen % 20koa edo gehiagokoa denean.
b) Hutsegite arinak behin eta berriz egitea.
c) Kontratuko betebeharrak ez betetzea, arau-hauste arintzat edo oso larritzat jotzen ez bada.

17.1.3) Arau-hauste oso larriak dira:

a) Kontratu hau arautzen duen Baldintza Teknikoen Agirian funtsezkotzat jotako betebeharrak ez betetzea.
b) Kontratuaren prestazio nabarmen akastuna eta irregularra.
c) Hutsegite larriak behin eta berriz egitea.

17.2. Zehapenak:

Arau-hauste horiengatik, zehapen hauek ezarri ahal izango zaizkio kontratistari:

a) Arau-hauste arinengatik: kontratuaren urteko prezioaren % 1era arte (BEZik gabe)
b) Arau-hauste larriengatik: kontratuaren urteko prezioaren % 1etik % 5era (BEZik gabe)
c) Arau-hauste oso larriengatik: kontratuaren urteko prezioaren % 5etik % 10era (BEZik gabe)

Hala ere, arau-hauste oso larriak direnean, Udalak bi aukera izango ditu: klausula honetan aurreikusitakoaren arabera zehapenak ezartzea edo kontratua suntsiarazteko espedientea hastea.

17.3. Prozedura:

Zehapen-espedientea irekitzeak ez du kontratista salbuesten kontratua bertan eta eskaintzan ezarritakoaren arabera gauzatzeko betebeharretik, eta betebehar horiek betetzeko errekerimendua egin dakioke, zehapen-espedientea hastearekin batera.

Kautelazko neurri horiek hartzeak edo betearazpen-aginduak betetzeak Udalari gastuak eragiten badizkio, horien zenbatekoa kontratistari jasanaraziko zaio, eta kobratzeko bidalitako hurrengo fakturatik kenduko da.

Zehapenak aplikatzeak ez du ezabatzen Udalak kalte eta galerengatiko kalte-ordaina jasotzeko eduki dezakeen eskubidea, kontratistaren atzerapenen ondorioz sortuak, eta, horretarako, SPKLn adierazitakoa hartuko da kontuan.

Kontratua kontratistaren erruz suntsiarazten bada, eragindako kalte-galeren ordaina eman beharko dio Udalari, hala badagokio.

Ezarritako zehapenen zenbatekoa ordaintzeke dauden fakturen ordainketatik kenduko da.

18. KLAUSULA. LOTE BAKOITZAREN KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

18.1. Suntsiarazteko arrazoiak:

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira, SPKLren 211. eta 306. artikuluetan aurreikusitakoez gain, honako hauek:

- Entregatu gabeko horniduren eta eman gabeko zerbitzuen fakturazioa.
- Kontratatutakoak baino baliabide gutxiagorekin emandako zerbitzuen eta horniduren kargu osoa, praktika hori errepikatzen denean edo behar ez bezala fakturatutakoaren zenbatekoa kontratuaren zenbatekoaren % 1era iristen denean.
- Udalaren ikuskapen-ahalmenak oztopatzea.

- Kontratatzeko debeku-kausaren batean erortzea.
- Kontratistak Administrazioarekin kontratatzeko baldintzak galtzea (kontratistaren gaitasuna eta kontratatzeko debekurik eza), SPKLren arabera.
- Kontratuko funtsezko betebeharrak ez betetzea.
- Baldintza teknikoak behin eta berriz ez betetzea.
- Zerbitzu ematea edo horniketa behin eta berriz etetea.

18.2. Prozedura:

Kontratazio organoak bere kabuz edo kontratistak eskatuta suntsiaraziko du kontratua, dagokion prozeduraren bidez. Prozedura horretan, kontratistari entzungo zaiola bermatuko da, SPKLren 212. artikuluan eta HAKLEOren 109-113. eta 172. artikuluetan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera.

18.3. Suntsiaraztearen ondorioak:

Kontratua suntsiarazteak SPKLren 213. eta 307. artikuluetan aurreikusitako ondorioak izango ditu. Kontratua suntsiarazten bada kontratistaren erruzko ez-betetzeagatik, bermea konfiskatuko zaio, eta, gainera, eragindako kalte-galerak ordaindu beharko dizkio Administrazioari, konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen duten neurrian.

19. KLAUSULA. DATU PERTSONALAK

Enpresa esleipendunak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoan (95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena), eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoan, xedatutakoa bete beharko du.

Kontratua dela eta, enpresa kontratistak datu pertsonalak tratatzen edo eskuratzen baditu, SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoa beteko da, bai eta arau hauek ere:

1. Kontratistak tratamenduaren eragileak emandako jarraibideen arabera baino ez ditu tratatuko datuak.

2. Tratatu beharreko datu pertsonalak sinatutako hitzarmenaren xedea betetzeko baino ez dira erabiliko, eta ezin izango dira erabili adierazitakoa ez den beste ezertarako.

3. Kontratu honen ondorioz tratatutako datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko. Ondorioz, kontratistak konpromisoa hartzen du datu horiek edo horiekin sortutako fitxategiak hirugarren bati ez emateko, lagatzeko, transferitzeko edo komunikatzeko, ez ahoz, ez idatziz, ez bitarteko elektronikoen bidez, ez paperean, ez sarbide informatikoen bidez, ezta bistaratzeko ere.

4. Kontratistak eta kontratua gauzatzen parte hartzen duten langile guztiek isilpean gorde behar dituzte datuak, Datu Pertsonalen Lege Organikoan aurreikusitako moduan. Betebeharrak, kontratua bete edo suntsiarazteagatik azkendu ondoren ere iraungo du.

5. Kontratistak konpromisoa hartzen du datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiak eta Segurtasun Eskema Nazionalak eskatzen dituzten baliabide teknikoak, administratiboak eta antolakuntzakoak hartzeko, hitzarmena betetzeko behar diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko:

    a) Ondorio horietarako, enpresak, lana hasi aurretik, zerrenda bat emango dio Kontratazio organoari, eskura dituen langile guztien izen-abizenak, eginkizunak eta garapen-lekuak adierazita. Kontratua gauzatzen den bitartean langile berriak sartu behar badira edo lehendik daudenei baja eman behar bazaie, enpresa esleipendunak beste zerrenda bat emango du aldaketa egin eta gehienez astebeteko epean. Enpresa esleipendunak eta zerrenda horietan agertzen diren langileek konpromisoa hartu beharko dute, formalki eta idatziz, erabilitako datuen gaineko sekretu profesionala gordetzeko.

    b) Esleipendunak tratamendu-zentroen, lokalen, ekipoen, sistemen eta programen segurtasun-neurriak aplikatuko ditu, baldintza teknikoetan zehazten badira.

    c) Kontratua gauzatzen amaitu ondoren, esleipendunak datu pertsonalak dauzkaten fitxategi guztiak itzuli edo suntsituko ditu. Behin suntsiketa eginda, ezinezkoa izango da horiek berreskuratzeko edozein prozesu aplikatzea. Fitxategiak itzuli edo suntsitu izanaren ziurtagiria enpresa esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatutako aktaren bidez egingo da. Aktan inguruabar horiek guztiak jasoko dira.

Enpresa kontratistak klausula honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik erakunde kontratatzailea zigortzen bada, ez-betetze horren ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, horiek kontratistari jasanaraziko zaizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak eskubidea izango du ordaindutako zenbateko osoa itzuli arte beharrezkoak diren administrazio-jarduketak edo jarduketa judizialak egiteko.

20. KLAUSLA. KONTRATAZIO-PROZEDURAN ERABILI BEHARREKO KOMUNIKABIDEAK

SPKLren 140.1.4 artikuluan eta hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, kontratazio-espediente honetan egin beharreko komunikazioak eta jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira.

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak Eusko Jaurlaritzaren lizitazio elektronikoko plataformaren bidez egingo dira.

Bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpena ezetsitzat joko da eskura jarri zenetik 10 egun natural igaro badira haren edukira iritsi gabe; eta jakinarazpena Eusko Jaurlaritzaren lizitazio elektronikoko plataforman instalatu bada, jakinarazpena epearen barruan egiteko baldintza betetzat joko da.